

# ***Ingurumen Buletina***

**1. Justizia irizpideekin muga fisikoetara egokitzea. *Yayo Herrero***

**2. Rio+20 goibilera: Mobilizazioa eta aliantzak. *Esther Vivas***

**3. Bizi!ren esperientzia Iparralden. *Adrien Kempf***

Ekainaren 5ean, Nazioarteko Ingurumenaren eguna zela eta, ELAK "Ekonomia Berdea? Irabaziak enplegua eta ingurumenaren kontura" jardunaldiak antolatu zituen. Buletin hau jardunaldi hauen laburpen bat da.

Hitzaldiko bideoak ikusteko egin klik [hemen](#)

### **1. "Justizia irizpideekin muga fisikoetara egokitzea" Yayo Herrero**

Ekonomia konbentzionalaren helburua erreproduzio sozialerako ondasunak eta zerbitzuak sortzea da. Bi menpekotasunei esker mantentzen da materialki. Lehenengoa naturarekiko menpekotasuna da, materialekiko eta energiarekiko menpekotasuna. "Naturaren menpekoak" gara. Beste menpekotasuna zaintzen gaituzten beste pertsonetikoa da (haurtzaroan, zahartzaroan, diskapazitateetan, gaixotasunetan). Lan ordu askoren menpekoak gara. Jendartearen biziraupena bideraezina da, ordaindu gabeko eta emakumeek eginiko lan ikusezin hori gabe. Bi arlo hauetan (naturan eta zaintzan) mugak daude. Bai kapitalismoak eta bai sozialismo errealak ez ditu muga hauek kontuan izaten. Produzio eredu hau hamarkadetan zehar aplikatu ondoren, ekonomiak pertsoneri eta naturari gerra deklaratu dien egoerara iritsi gara.

Egitura krisi baten aurrean gaude, krisia ekologikoa eta soziala da eta finantza eta ekonomi krisiaren azpian ezkututzen da. Ekonomia kapitalistak "balio" kontzeptua "prezio" kontzeptura mugatzen du. Hau da,

prezioa duenak bakarrik du balio ekonomikoa. Baina badira gauza asko ezinbestekoak direnak eta ez dutenak preziorik. Zenbat balio du ozono geruzak, umeen zaintzak edo bizitzea merezi duen zahartzaroak? Zerbitzu hauei prezioa jarriz gero gutxi batzuk aberastuko diren negozioak sortzen dira, baina ez dira arazoak konpontzen. Adibidez karbono emisioen merkatua; negozio handia sortu da baina emisioak etengabe jarraitzen dute hazten. baliabide nahikoa eskura izan gabe ere negozioak martxan jartzen dira, beste leku batzuetatik ekartzen dira eta inpaktuan ere leku hartan geratuko dira, beste herrialde batzuen kontura egiten da negozioa.

Ekonomia kapitalista ez da zientzia, ideologia bat da, eta ez du bere formulazioan atzean uzten duen suntsiketa kontuan izaten. Interes ekonomikoak babesten dituen legea da, eta ez hain zuzen justizia eta banaketa irizpideekin. Oinarri materialen eta ekonomiaren arteko loturak hautsi egin dira. Ekonomia birtuala da, planetako baliabide naturalei lotuta jarraitzen duela kontuan hartzen ez duena. Ekoizpen eredu honen esanahia nondik datozen galdetu gabe sortutako etekinak sortzea da, berdin da elikagaiak edo lehergaiak ekoiztea.

Sistema ekonomiko honek iceberg baten itxura dauka. Ikusten den eta txikiena den zatia erosi eta saltzen dena da, ordaindutako lanpostuak, finantza espekulazioa,... Eta azpian ikusten ez den

eta gaineko zatia eusten duena dago, langile esplotatuak, naturaren suntsiketa, erreprodukzio soziala ahalbideratzen duen lan ezkutua,... eta hauek mugara iristen ari dira. Muga horiek jada arazoak sortzen ari dira.

Emakumeek etxearen gestioan lan egiten duten orduen jabetze eta konfiskatze bat dago. Gero ordu horiek gizonezkoek merkatuetara dedikatzen dituzte. Ekonomia hau ikusezina den arloan egiten diren ekarpenen gainean sostengatzen da.

Modu honetan funtzionatzeak krisi sakon batera eraman gaitu. arlo publikoan material eta energiaren krisia dago. Energia asko behar dugu mugikortasun handiarekin funtzionatzen dugulako, hiriek ez dute bizitzeko ezinbestekoa den ezer ekoizten (elikagaiak, ura, energia...) eta baliabide horiek hirietara ekarri behar dira bidean hondakin kopuru handi bat sortuz. Hau posible da energia fosil merkea izanez gero. Hori gabe eredu hau guztiz bideraezina da. Gizon-emakumeok, gustatu edo ez gustatu, energia askoz gutxiagorekin bizi beharko dugu, beraz, ekoizpen, banaketa, eta kontsumo eredu aldatzera behartuak gaude.

Krisi ekologikoak funtsezko klase dimentsioa dauka. Errenta eskuratzeko dagoen ezberdintasuna, baliabide naturalak eskuratzeko ere badago. Momentu honetan gure ekonomiak kanibala dira, beste pertsona eta lurraldeei esker sostengatzen dira. Horregatik ezinbestekoa da justizia modu globalean aldarrikatzea.

Eredu ekonomiko honek hazkunde garaian suntsitzen badu, eta aldi berean, hazten ez denean ere suntsitzen badu, irtenbidea beste eredu ekonomiko batean egon behar da. Erantzun beharreko galderak ondorengoak dira: Zein behar bete behar dira? Zeintzuk dira sozialki beharrezkoak diren ekoizpenak? eta ekoiztu behar denaren eta ekoiztu daitekeenaren arabera, Zeintzuk dira sozialki beharrezkoak diren lanak? Badira sozialki beharrezkoak ez diren lanak, baira desiragarriak ez direnak ere, nahiz eta lan hauek egiten dituzten pertsonak, beharrezkoak diren noski. Trantsizio honek bermatua eta justua izan behar du, berme eta gizarte babes osoarekin. Baina egin beharrekoa da. Badira sektore batzuk fisikoki mantendu ezingo direnak eta funtzionatzen jarraitu ezingo dutenak. Teknologiak ez gaitu egoera honetatik aterako, egoera honetan lanaren eta baliabideen banaketa klabeak izango dira. Baita aberastasunaren banaketa ere, orain arte ikusi duguna pobreen arteko borroka izan baita. Trantsizio honetarako bidea elkarrizketa izan behar da. Ezinbestekoa izango da ekologismoa eta sindikalismoaren arteko eztabaida.

## **2. "Rio+20 goibilerari: Mobilizazioa eta aliantzak" Esther Vivas**

Hurrengo egunetan medioetan Rio+20 goibilerari buruz hitz egiten entzungo dugu. Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen Konferentzia da, Rio de Janeiron Lurraren Gailurra egin zela 20

urte pasa direnean egingo da. Orduan gai nagusia garapen iraunkorra izan zen. handik irten zuten Agenda 21, Biodibertsitatearen Konbentzioa eta Kiotoko Protokoloaren oinarri den Klimaren Konbentzioa. 20 urte hauetan ez da aurreratu gai hauetan, hitz hutsak izan dira. Hobeto egon beharrean, krisi ekologiko eta klimatikoak okerrera egin du. Deforestazioak aurrera egin du, biodibertsitatea galdu da, berotegi efektuko gasen emisioak hazi egin dira, hau da atzerantz goaz. Helburua ekosistemen eta biodibertsitatearen kontserbazioa zela esaten zuten arren, ez da horrela izan. Baliabide naturalen pribatizazio izugarria bizi izan dugu, Adibidez, komunitateen esku zeuden lurren desjabetzeak Afrikan eragin sozial larriak ditu. Lur hauetan lan egiten zuten nekazariak beraien lurretatik kanporatu dituzte. Pentsio fondo eta enpresa espekulatuak Hegoaldeko herrialdeetan lurra bereganatzen ari dira, lurra oinarrizko balioa duelako eta gaur egungo testuinguruan balio segurua delako. Lur pribatizatu egiten da, saldu edo alokatu egiten da esportaziora zuzenduriko nekazal ekoizpenerako, beraien kontsumorako lur hauek lantzen zituzten nekazarien kaltetan. Adibide honekin garbi ikusten da, haziekin edo urarekin ikusten den bezala, finantzek nola pribatizatu dituzten baliabide naturalak enpresa gutxi batzuk negozioa egiten jarraitu dezaten. Are gehiago krisi ekonomikoaren testuinguruan, balio seguruak bilatu behar direnean.

1992tik egindako politikak

aurrekaririk gabeko krisi ekologiko eta klimatikora eraman gaituzte. Gizateriaren eta planetaren biziraupena arriskuan jartzen duen krisi klimatiko hau, aurre egiten ari garen krisi kapitalista honen, paradigmaren krisiaren elementu zentrala da. Krisi klimatiko honen ondorioak (emisioak haztea, uholdeak,...) ez ditu ingurumenean soilik inpaktuak eragiten, populazioaren desplazamendua bezalako eragin sozialak ere baditu. Dagoeneko munduan 50 milioi desplazatu klimatiko daude.

2008ko krisia pasako zela esaten zuten, baina benetan tunelaren bukaerako argia kontra datorren tren baten argia da. Eraso itzela pairatzen ari gara eskubide sozial, demokratiko eta laboralak suntsitzeko. Dimentsio izugarriko krisi soziala dugu. Pobrezia, prekarietatea eta langabezia gora doaz. Argi geratu da sistema kapitalista dela krisi ekonomiko, sozial eta ekologiko honetara eraman gaituena. Irteerarik ez duen bidera eraman gaitu eta sistemaren alternatibak merkatuen liberalizazioa, lan merkatuaren prekarizazioa eta zerbitzu publikoen pribatizazioa dira. Azken finean, krisia eragin duten arrazoiak bertatik irteteko soluzio bezala aurkezten dizkigute.

Krisitik ateratzeko sistema kapitalistaren porrot hau Kopenhage eta Cancungo klima negoziaketetan ere ikusi da, eta beste negoziazio askotan ere bai. Goi bilera eta negoziazio internazional guzti hauetan elite ekonomikoaren interesak aurretik jartzen dira, elite politiko eta

ekonomikoen lotura estua agerian utziz. Soluzio faltsuak saltzen saiatu dira: energia nuklearra, karbono emisioen merkaturia, bioerregaien ekoizpena, karbono almagaztatuak,... Krisi ekologikoaren kontura gutxi batzuek negozioa egitea bilatzen duten alternatiba faltsuak dira. Ima aldaketa ez da emisioen merkantilizazioarekin edo baliabide naturalen pribatizazioaren konpontzen, emisioak lege bidez debekatuko dituen neurri sendoekin baino. eta kapitalismoaren nukleo gogorra ere ukitu behar da gaur egungo produkzio, banaketa eta kontsumo ereduak zalantzan jarriz adibidez. Baina agintzen dutenek, gutxi batzuk, ez daude prest beraien pribilegioak eta horrenbeste etekin ematen dietena galtzeko.

Goibileran hauetan parte hartzen duten gobernuek pribatuz onartzen dute negozioaren hauen porrota, baina jendaurrean defendatu egiten dituzte. Politika publikoak gutxi batzuen interes finantziario eta ekonomikoak babesten dituzte, hortik dator populazioaren gehiengoaren arazoak konpontzeko ezintasuna. Elite ekonomiko eta politikoaren arteko loturak begi-bistakoak dira. %1a erreskatatzen dute %99aren kontura. Politika hauek indar korrelazioa aldatuz aldatuko dira bakarrik.

Gainera krisiaren ardura populazioaren gehiengoari leporatzen digute: gure aukeren ginetik bizi garelako, gehiegi kontsumitzen dugula, ez dugula birziklatzen, autoa gehiegi erabiliz kutsatzen

dugula... Egia da sistemak ezarri dizkigun ohiak aldatu behar ditugula, baina klima aldaketa eta ekosistemaren degradazioaren zati handiena enpresek eragin dute gobernuaren konplizitatearekin. Enpresa handiak dira aberastu direnak eta orain ekonomia honek sortutako galerak sozializatu egin nahi dituzte.

Rio+20ko agendan ekonomia berdea dago. "Berde" hitza irudia garbitzeko erabiltzen da, baina azken finean etekinak ateratzen jarraitzeko eta oraindik pribatizatu gabe dauden baliabide naturalak pribatizatzeko sistema da. Riotik marko legal berri batekin eta ekonomia berdearen aldeko iritzirik publiko batekin irten nahi dute. Azken 500 urtetan egin den baliabide naturalen akaparazio handiena izango da. Beharrezkoa da beraz langilearen eskubideak bermatuz ekoizpen ereduak aldatzea, eta horregatik sindikalgintzak beste mugimendu sozial batzuekin elkarlanean aritu behar da. Gure aldarrikapenak politika publiko bihurtuko dira kalean bagaude eta borrokatzen badugu.

### **3. "Biziaren esperientzia Iparralden"**

#### **Adrien Kempf**

Bizi! Iparraldeko mugimendu sozial eta ekologikista da, justizia klimatikoa eta justizia sozialaren alde borrokatzen duena.

Klima aldaketa eta hau sortzen duten berotegi efektuko gasen murrizketa izango dira Rion erantzun beharreko erronketako batzuk. Badirudi hauentzat erantzuna

ekonomia berdeak izango duela. Baina zer da Ekonomia berdea? Ekonomia berdea gaur egungo sistema bera da egokitzapen batzuk eginda. Berotegi efektuko gasak murriztea du helburu baina gaur egungo kontsumo ohiturak, produkzio maila eta botere ekonomikoak aldatu gabe. Bere ezaugarri nagusia soluzio teknologikoak dira: bioerregaiak, auto elektrikoa, energia nuklearra,... Eta baita naturaren eta kutsaduraren merkantilizazioa ere. Kutsatzeko eskubidea horrek benetako emisio murrizketak finantza erramintekin ordezkatzeko ditu. Ekonomia berdeak kapitalismoa mantentzen du ingurumen eraginkortasunaren itxurapean. Ez ditu kontsumo eta ekoizpen eredu kapitalistak ukitzen, ez ditu injustiziak konpontzen. Ekonomia berdeak ekonomia kapitalista mantentzen du. Baina ekonomia berdea ez da egia, ilusio bat da, ezin dira emisioak murriztu ekoizpen eta kontsumo ereduak aldatu gabe.

Bizirik badu oso eslogan simple bat "sistema alda dezagun, ez klima". Ekonomia berdearen soluzioak injustuak dira eta ez dira eraginkorrak. Garraioa, finantzak, natura, lana, kontsumoa,... dira Bizirik lantzen dituen gaiak eta "pentsa globalean eta ekin lokalean" formula aplikatzen du. Ekintzak bertako errealitatearen testuinguruan kokatzen dira, helburu zehatzak dituzten akzio errealistak dira. Adibidez, garraio ereduak aldatzeko aldarrikapena Miarritzen bide gorriak

eskatuz egin zen, autoa alde batera utzi eta bizikleta erabiltzeko. Ekintzek kontzientzia dute helburu. Umorea, hitzaldiak, tokiko inplikazioa,... dira kontzientziazio bideak, gutxinaka jendea gai hauetan sentsibilizatzen ari da. Alternatiba konkretuak esperimentatzen ari da Bizirik jada: zero zabor, moneta lokala,... Soluzio hauek probatu, zabaldu eta konparatu egiten dira beste batzuekin. Soluzio hauekin prestatzen da trantsizio ekologikoa eta soziala.

Transformazio hau sindikatuentzat aukera bat izango da. Trantsizioak jarduera estrategikoen (ura, energia, garraioa...) kontrol publikoa exijitzen du. Entitate publiko bat bakarrik izango da gai murrizketa logika bat ongi aplikatzeko eta ez akumulazio logika bat, horrela denentzat beharrezko zerbitzuak ziurtatu ahal izateko.

Lan orduen murrizketan eta lan erritmoen desintetsifikazioan, ez prekarizazio eta flexibilitatean, lan egin behar da. Banaketa hobea egitea eta denbora libre gehiago izatea borroka sozialak izan behar dira. Eta emisioen eta energia kontsumo handiko sektoreetako lana murriztea borroka ekologikoa izan behar da.

Sindikatuaren borroka historikoa izan da lan orduen murrizketa, eta hau eredu bezala hartu behar da klima aldaketari aurre egin eta justizia soziala bermatuko duen borrokarako.